

EUSKALZALE

ASTEAN ASTEANGO ALBISTARIA

EUSKALERRIAN	MOLDAGINTZEA TA LIBURUTEGIA	ERDALERRIAN
<i>Euskalzalaren liburuteria</i> artu nai dabeneztat, urteko euspena . . . 20 erreal. Liburuteri ori nai eztabeneztat barriz 24 »	JARDINES-KALEKO 10 da 12 GARREN ETŠEETAN Gei bakoitza, urteierako astean «tšori andi» bat. Aste-bete igaroezkero, gei bakoitza «tšori andi» bi.	<i>Euskalzalaren liburuteria</i> artu nai dabeneztat, urteko euspena . . . 24 erreal. Liburuteri ori nai eztabeneztat barriz 30 »

IRAKURKIZUNAK

- I. Berba egikerea.—II. Guzuz ilun-zaleari.—III. Izkirimiriak.—IV. Euskalzale-ren Artezleri Jaunari.—V. Anton Betozko.—VI. Eskutitz bat.—VII. Seigarren tširristadea.—VIII. Esakuneak.—IX. Euskalzalek Vascofillori.—X. Gure artu-emonak.—XI. Aste onetako Done edo Santuak.—XII. Iragarriak.

BERBA EGIKEREIA

II

Aots sorkideak (1) edo asiera bardindunak bost edo sei pilotan sartu leikez.

Lenengo pilokoak. I=i, d, j, dš.
 { Iausi, iezarri, iinok, ioko, iuzturi (2).
 Āausi, đezarri, đinok, đoko, đuzturi.
 Jausi, jezarri, jinok, joko, juzturi.
 Dšausi, dšezarri, dšinok, dšoko, dšuzturi.

I-k eztaukaz beti lau ots onek. Atzetik aots itšia (erderaz *consonante*) daukanetan, *i* esaten da beti. Atzetik aots edegia (erderaz *vocal*) daukanean bere, ezтира beti beren orde*z j* ta *š* ta *dš* esaten. Aurretik beste aots edegi bat eukiezkero, *ŷ* ezta esaten; *đ* ta *dš* toki gitšitan; geienetan *i* esaten da. *Baietz* eztau inok *bajetz* esaten; *badetz* edo *badsetz* gitšik; *baietz* (2) geienak.

Bigarren pilokoak. E=e, i.
 { *Learra, leorra, anae, orroe; gosea, gasteena, kaleok.*
Liarra, liorra, anai, orroi; gosia, gastiena, kaliok.

E-n orde*z i* esateko, nai-ta-ezkoa da aurretik edo atzetik *a* edo *e* edo *o* egotea.

Irugarren pilokoak O=o, u
 { *Ardao, oar; arroa, goikoetan, zorook.*
Ardau, uar; arrua, goikuetan, zorook.

- (1) Erderaz sonidos homogeneos, sons homogènes.
- (2) Batzuk *yausi, yezarri, yinok, yoko, yuzturi* eskutiztuten dabez.
- (3) Bigarren da irugarrenekoak pilo baten inoiz erakutsi dauz, au egiten diarduan onek.
- (4) *Aditzak irabia* erderaz conjugar verbos, conjuguer des verbes.

O-n orde*z u* esateko bere, aurretik edo atzetik *a* edo *e* edo *o* egotea gauza bearra da.

Ioan da *eroan* aditzak irabiaten (4) direanean; batzuk *oa*, beste batzuk *ua*, beste batzuk *oia* esaten da-be. *Daroat, daroiat, daruat; goaz, goiaz, guaz.*

Laugarren pilokoak. — { *Garia, goriēna, biotza.*
Gariya, goriyēna, biyotza.
 I-n urrengoak . . . { *Gariša, gorišēna, bišotza.*
Garidša, goridšēna, bidšotza.

Bizkaian ezto*gu y* edo *i* artetuten: *š* edo *dš* edo bat bere ez. *ŷ*-z erakutsi dabez Bizkaiko eskutizketari geienak aots sorkide onek: *garija, gorrijēna, biyotza.* *ŷ*-k beren aotsa erderazko *j*-k dabena dau. Izkira edo letra bati aots bat iagoka edo dagokio; ta ezin iragarrri edo erakutsi leikez *j-z š* ta *dš*.

Boskarren pilokoak. — { *Ordua, goruetan, liburuok.*
Orduba, gorubetan, liburubok.
 U-n urrengoak . . . { *Orduia, goruietan, liburuiok.*

Orduia zuberotarrak esaten dabe; *ordia* bere bai, *ordua* esateko. *Orduba* Bizkaian da Gipuzkoan.

Seigarren pilokoak . . . { *z = ž, — Gizon, gizon.*
s = š, — gaisorik, gaisorik.
l = ĩ, — mutila, mutila.
n = ñ, — lakaina, lakaina.
d = đ, — bildur, bildur.
t = ț, — ito, ito.

I-n urrengo egiten dira aldakuntsa onek.

Zazpigarren pilokoak. — { *Gorria, eskua.*
Gorrie, eskue.
 a=a, e. { *Ordu bat, etorri da.*
Ordu bet, etorri de.

I ta *u*-n urrengo esaten dabe batzuk *a*-n orde*z e*.

Aots sorkide onek ondo ta erara eskutiztu edo eskribiduteko, euren iatorria zein dan iakin bear da; ta au iakinezkero, iatorrizko izkira edo letreaz erakutsi bear dira. Edo argiroago: *i*-tik dato*zan aots guztiak* (*j*, *y*, *š* ta *dš*) *i*-gaz erakutsi bear dira; *e*-tik dato*zanak* (*e* ta *i*) *e*-gaz; *o*-tik dato*zanak* (*o* ta *u*) *o*-gaz; *i*-n urrengoak *i* esanaz; *u*-n urrengoak *u* esanaz; eta onen antzera besteak. ¿Zegaitik? Urrango geian esango dogu.